

XXXIII.  
EUSKAL  
ANTZERKI  
TOPAKETAK

AZPEITIA,  
2015EKO UDAZKENA



# AGURRA

Euskaraz egiten diren Antzerki Topaketa bakarrak iristear daude. Lau astetan zehar, kultura eta euskararen aldeko festa ospatuko dugu Azpeitian, XXXIII. Euskal Antzerki Topaketei esker. Urriaren 23tik azaroaren 21era bitartean adin, gustu eta nahi desberdinetara egokitutako emanaldiez gozatzeko aukera izango da. Eta dena, euskara hutsean.

Bi estreinaldi izango ditugu aurten: azaroaren 7an "Eskutitzak" Izar Films eta Itzel Antzerkiaren eskutik eta 15ean, haur eta gaztetxoei zuzenduta, Txalo Antzerki Taldearen "Magia lapurra". Profesionalez gain, amateurrek pisu garrantzitsua izaten jarraituko dute. Honela, Azpeitiko Emakumeen Tailerrak bere abilezia taularatuko du, "Punto ta punto" lana eskainiz azaroaren 14ean. Zestoako interpretazio eskola ere gure artean izango dugu, urriaren 30ean "Lukurreria, lizunkeria eta heriotzaren erretaula" lanarekin.

Topaketak indarberritu nahi izan ditugu eta egitasmo berritzaileak prestatu ditugu. Honela, antzerki alternatiboaren zikloa egingo da gaztetxean azaroaren 19an eta 20an, eta aurtengo Euskal Antzerki Topaketei emaiara emateko, emanaldi berezia; Xabier Maria Munibe Peñafloidako Kondearen Opera Komikoa "Mozkorra parregarri".

Oholtzatik haratago, ordea, antzerkiak bizia baduela erakusteko beste hainbat ekimen ere izango ditugu. Honela, urriaren 24ean antzerkizaleen topaleku bilakatuko da Azpeitia, eta Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarte (EHAZE) egunaren baitan hamaika ekintza egingo dira plazan. Azaroan, berriz, txotxongilo mundua gertutik ezagutzeko aukera izango da Corrado Masacciren eskutik. Bere azken lanak Betharram aretoan egongo dira ikusgai azaroaren 2tik 15era.

**EUSKAL ANTZERKIAZ  
GOZA DEZAGULAI**

# ERAKUSKETA

**Corrado  
Masacci-ren  
Igelen Itxuraldaketa  
eta azken kreaizioak  
erakusketa ikusgai**

**Azaroaren 2tik  
15arte irekita**

Astegunean 18:00etatik  
20:00etara eta asteburutan  
12:00etatik 14:00etara,  
Betharram aretoan

**Azaroaren 2tik 6ra  
eta Azaroaren 9tik  
13ra.**

Ikastetxeko ikasleentzat  
zuzenduta: Udal Kultura Saila  
egilearekin bat eginik lotutako  
bisita gidatuak eskola  
orduetan goiz/arratsaldean.





# ANTZERKIZALE EGUNA



## Urriak 24, larunbata

12:00etan, Sanagustin Kulturgunean  
“Oholtzaberri” proiektuaren  
aurkezpena

16:30ean, Sanagustin Kulturgunean  
“Mitologiaz ahaztu al gara?”

Umeentzako ikuskizuna  
Sarrera: 5 euro

21:00etan, Soreasu Antzokian  
**Antzerkizale Gala**  
Doan


## Urriak 30, ostirala

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

## “LUKURRERIA, LIZUNKERIA ETA HERIOTZAREN ERRETAULA”

Eromen produkzioa  
(Zestoako interpretazio eskola)



### SINOPSISIA

Bi kontalari. Helburu bat: Don Pedroren etxera iristea. Ibilbide horretan hiru istorio: “LOTURA”, “PAPEREZKO ARROSA” eta “SORGINDUA”. Hiru errealitate ezberdin hauen atzean, lotzen dituen zerbait dago: gizakiaren degradazioan eta deformazioan sakontzeko beharra. Ikusleak Electus itsua eta Maria Virula izango ditu bidai lagun, Valle-Inclánen “Lukurreria, Lizunkeria eta heriotzaren errataula” honetan.

Eromen Produkzioak Zestoako Interpretazio Eskolatik sortutako proiektua da. Eskola horretako ikasleek, hiru urteko ikasketa prozesu baten ondoren, eta Amancay Gaztañaga aktore eta irakaslea zuzendari zutela, antzerki talde bat martxan jartzea erabaki zuten 2014an, eta hala jaiotzen Eromen. Dagoeneko honako antzezlanak taularatu dituzte: ‘Uda gau bateko ametsa’, William Shakespearerena, ‘Artza’, Anton Chejovena, ‘Ernesto Izatearen Garrantzia’, Oscar Wildena, eta ‘Lukurreria, lizunkeria eta heriotzaren erretaula’, Ramon Maria Valle Inclánena.

### FITXA ARTISTIKOA

- Zuzendaritza eta dramaturgia: Amancay Gaztañaga
- Testua: Valle-Inclán
- Itzulpena: Amancay Gaztañaga
- Aktoreak
  - Electus: Ainhoa Casina
  - Maria Virula: Amaia Odriozola
  - Neskatoa: Maialen Kortadi
  - Raposa: Manolo Gaztañaga
  - Txorroskileroa: Ruben Larrañaga
  - Bentaria: Estitxu Elduaien
  - Judutarra: Anne Uria
  - Musa: Lorea Alberdi
  - Disa: Leire Egaña
  - Oheari lotua/Floriana: Ane Arenas
  - Simeon Julepe: Mikel Ibarburen
  - Alabak: Maria Blanco eta Anne Uria
  - Navora: Marije Izeta
  - Junoko Juana: Goizane Barroso
  - Rosa Galans: Anne Uria
  - Mauriña: Maria Blanco
  - Anxelo: Ruben Larrañaga
  - Don Pedro: Manolo Gaztañaga
  - Malvin: Maialen Kortadi
  - Isoldina: Ane Arenas
  - Txori Txiki Jauna: Esti Elduaien
- Musika: Eñaut Gaztañaga
- Argi diseinua: Joel Crespo
- Espazio eszenikoa: Amancay Gaztañaga, Jose Luis Odriozola eta Eromen Produkzioak
- Argazkia: Mattin Saldias

## Urriak 31, larunbata

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

### “ITSASOARI NEGAR”

Ze onda Taldea



### SINOPSISIA

Kostaldeko herri txiki bat eta bertan, neskatxa bat: Maren. Mutilen antzera, itsasora atera eta arrantza egin nahi duen neskatxa. Baina herrixka honetan emakumeen eta gizonen paperak oso garbi daude: gizonak, itsasoan eta emakumeak, sukaldean.

Maren ezkondu eta urte batzuetara, herriko gizonak Iparraldera abiatzen dira kostaldean geroz eta eskasagoak diren arrainen bila, baina ekaitza batek bere bizitzekin bukatzen du.

Herrixkan, emakumeek portuan igarotzen dituzte orduak, itsasoari negar, gizonik eta arrantzarik gabeko bere etorkizunari aurre egin ezinik.

Orduan, umetako ametsak martxan jarriko dira berriz eta Maren ordura arte gizonentzat bakarrik zen lanbidean pausuak ematen hasiko da.

### FITXA ARTISTIKOA

ZE ONDA taldea 2012.ean sortu zen ideia zehatz batekin: mugiarazten gaituzten istorioak sortzea, antzerki fisiko eta berezko testuen bitartez. Gure lehenengo lana MIKROUHINA antzezlan izan zen (2013), taularazten jarraitzen dugun pieza txikia.

#### JON ANDER ALONSO

Donostiako AET-en eta Serge Martin Geneve-ko antzerki eskolan burutzen ditu ikasketak. Orduz geroztik, antzezlan desberdin askotan hartu du parte, bai Suitzian eta baita Euskal Herrian ere. Suitzako Théâtre Spirale eta Bayonne-ko Cie. Hecho en casarekin kolaborazioak egin ditu.

#### ANE ARENAS

AET-en ikasi aurretik, Azpeitiako antzerki tailerrean aritu zen antzerkian lehenengo pausuak ematen. Hortzaka taldearen kide eta sortzaile, honekin irabazi zuen 2011. urteko Asvineneako Antzerki Lehiaketa, Eguzkilore pieza motzarekin. Azpeitiako Gaztetxeako antzerki programazioaren kudeaketaren arduraduna da.

#### SILVIA MANZANA

AET-en ikasten du. Ondoren, Teatro Estudio konpainian lan egiten du eta 2010.ean zenbait sari jasotzen ditu Le Mamelon Fantastique konpainiarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiko Literatur Sormen beka jaso ordutik, aktore eta idazle lanak uztartzen ditu.

#### IÑAKI SANTOS

AET-en egiten ditu antzerki ikasketak musikari honek. Antzerki eta dantza ikastaro ugarirekin osatzen du bere formakuntza. Pollo Rosa Produzioak taldearen sortzailea, antzerki, dantza zein musika proiektu desberdinetan dabil lanean. Teknikari lanetan ere aditua.

## Azaroa 1, igandea

### III. ANTZERKI ESKOLEN EGUNA

EHAZEK antolatuta eta METROKUADROKA taldearen eskutik ekitaldi “berezi berezia” herriko kaleetan zehar... Amaitzeko ogitartekoak Sanagustin Kulturgunean



HAUR + HELDUENTZAT

### “KIXOTE” Markeliñe

18:00etan,  
Soreasu Antzokian



### SINOPSISIA

Gure Kixote ez da bizar zorrotzeko gizon argala, amets bakarra hegan egitea duen neska baizik. Beste mundo batzuk eraikitzen ditu irudimenean, eta bere erokeriaz gain beti darama berarekin bere adiskide leiala, bere laguntzailea: Santxa. KIXOTE, Cervantesen eleberriko pertsonaia arketipoetan oinarritutako adiskidetasun istorioa da. Testurik gabeko ikuskizuna, bi emakume antzezlerentzat eta trapezioan ari den hirugarren batentzat egina. Formatu ertaina, familia osoarentzat eta 6 urtetik gorako umeentzat.

Ikuskizun honetan ez dugu Cervantesen eleberria kontatu nahi. Bere pertsonaia prototipoak erabili nahi ditugu, ametsa eta errealtatea aurrez aurre jarriko dituen istorioa kontatzeko. Aza eta lebxua artean, adiskidetasuneari oinarritutako istorioa azalduko diguten bi arketipo.

Pertsonaia bakoitzak mundua ikusteko eta gauzak egiteko modu berezia du. Errealtatearen ikuspegia, modu batekoa zein bestekoa izanik ere, beti ere interesgarriago egin daiteke, amets ez aberastuta badago. Eta amets oro errealtate bilakatzen da errealtate nola bilaka dezakegun azaltzen badigute.

### FITXA ARTISTIKOA

- Zuzendaritza: Markeliñe
- Ekoizpena: Markeliñe
- Koordinazioa: Joserra Martinez
- Antzezleak: Sandra F. Agirre  
Itziar Fragua  
Maitane Azpiroz
- Zuzendaritza Teknikoa: Paco Trujillo
- Jantzien Diseinua: Marijo De La Hoz
- Musika Zuzendaritza: Fran Lasuen
- Eszenografia Atx Teatroa
- Argien Diseinua: Paco Trujillo
- Argazkiak: Luis Antonio Barajas
- Diseinu Grafikoa: Itsaso Benedicto
- Komunikazioa: Gloria Hernandez

## Azaroak 5, osteguna

HELDUENTZAT

21:00etan, Udaletxeko ganbaran

“ZU GABE” Atea Teatroa



### SINOPSISIA

“Nahi baino lehenago banandu ginen eta bizitzarekin aurrera jarraitu behar izan nuen, zu gabe.

Eta justu orain, gehien behar zintudanean azaldu zara...”.Eskaini halako aukera edozeini, berriz topo egitea inoiz aurkitzea espero ez duen maite duen harekin.

Pertsonaiek partekatzen duten elkarriketan zehar gatazka asko azalduko dira.

Belaunaldi ezberdinetatik gizartea, familia eta norbanakoari egindako begirada ikusiko dugu. Bizitzaz eta heriotzaz hausnarketa egingo dute. Dramaren xedea ikuslea hunkitzea baino gogoetara eramatea da.

Lan honek aktoreei sentimenduz eta egiarekin jokatzeko duen antzezpenera eskatzen die. Zumetaren irudiekin eszenografiari, Xabier Lozanoren argiztapen diseinuarekin eta Bap!! eta Mikel Laboaren musikarekin aurkeztuko

### FITXA ARTISTIKOA

- Aktoreak: ANABEL ARRAIZA eta INAZIO TOLOSA
- Gidoia eta zuzendaria: ALEX TELLO
- Argiztapena: XABIER LOZANO
- Eszenografiako irudiak: ZUMETA
- Musika: MIKEL LABOA eta BAP!!
- Eszenografia eta jantziak: ATEA
- Ilustrazioa: ALEX TELLO
- Argi eta soinu teknikariak: FACTORY LOGISTIKA
- Argazkiak: ISA F. DE AGIRRE, GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA
- Bideoa: ISA F. DE AGIRRE
- Inprimategia: FASPRINT
- Maketazioa: MAITE ROMERO
- Usurbilgo SUTEGI antzokian prestatua

## Azaroak 6, ostirala

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

“ETXEKOAK”

Huts Teatroa - Artedrama



### SINOPSISIA

“Etxekoak” antzezlanaren istorio pertsonal batetatik abiatzen da.

Itsasoaz bestalde maitemindu nintzen. Atzerriko lagunarekin egoteko aukera bakarra ezkontzea izan zen.

Eta hor hasi zen dena: burokrasia, paper administratiboak, joan etorri zenbaezinak, elkarriketak kontsulatuan... urtetako erokeri eta zentzugabekeria hutsa.

Esperientzia honetatik abiatuz, egungo gizarteak eta estatuak sortu eta eraiki dituzten muga eta lege absurduen kritika egitera goaz antzezlan berri honekin. Etxekoa/kanpokoak dikotomian gaur egun hain presente dugun inmigrazioaren gaia jorratuko dugu.

### FITXA ARTISTIKOA

- Zuzendaria: Ander Lipus
- Idazlea: Jon Gerediaga
- Aktoreak:  
Kristian Etxaluz  
Javier Barandiaran  
Ander Lipus  
Maika Etxekopar
- Zuzendari laguntzailea: Mariya Aneva
- Musika: Asier Ituarte
- Argiztapena: Josep Duhau
- Jantziak: Leire Orella
- Bordatuak: Karmele Lizundia
- Eszenografia: Jose Pablo Arriaga
- Panpina eta atrezzoak: Baitit Halsouet
- Kartela: Aritz Merino
- Argazkiak: Ainhoa Resano
- Web arduraduna eta diseinua: Roberto Quintana
- Administrazioa:  
Iasone Parada  
Irantzu Azpeitia  
Xabino Alkorta
- Banaketa: Irantzu Azpeitia
- Ekoizpena: ARTEDRAMA



ESTREINALDIA

**Azaroak 7, larunbata**  
HELDUENTZAT  
21:30ean, Soreasu Antzokian  
Izar Films eta Itzel Antzerkia

# Eskutitzak

MAITASUN DEBEKATUA. MAITASUN AMAIGABEA.

## SINOPSISIA

Azkoitia, 1936ko uztaila. Denbora gutxira azkoitiarren bizitza gutzitx aldatuko duen Gerra Zibila lehertuko da.

Testuinguru honetan kokatzen da Joxe eta Emilia gazteen arteko amodiozko istorioa. Emilia herriko alpargata fabrikaren jabearen alaba da, familia frankista aberatsekoa. Joxe berriz, Azpeitiako postari errepublikar sutsuaren semea da eta alpargata fabrikari lan egiten du.

Lehenengo topo egitetik itxuragabe maitemintzen dira, baina bi familiez gain, maitasun hau oztopatuko duten hainbat eragozpeni aurre egin beharko diote. Lortuko ote dute elkarrekin egotea?

## FITXA ARTISTIKOA

- Sortzaileak: Itziar Elias eta Izaskun Arandia
- Zuzendaritza: Izaskun Arandia
- Aktoreak:  
Itziar Elias  
Aitor Ferdinandino  
Iosu Florentino  
Josean Bengotxea  
Olatz Beobide  
Aiora Sedano
- Aktore Partearitzaileak:  
Klara Badiola  
Iñaki Beraetxe  
Lander Otaola
- Argi Diseinua: Inge Arrue eta Pako Revueltas
- Teknikaria: Inge Arrue
- Jantziak: Xanti Alkorta
- Kartela: Mai Desing
- Banaketa: Izar Films
- Eskutitzak IZAR Films eta ITZEL Antzerkiaren ekoizpen bat da.



**Azaroak 8, igandea**  
HAUR + HELDUENTZAT  
18:00etan, Soreasu Antzokian  
“MOBY DICK”  
Gorakada Teatroa

## SINOPSISIA

H. Melvilleren eleberrri ospetsuaren antzerkirako egokitzapena. Ismaelek Pekod balea ontzian eta Acab kapitainaren agindupean bizitako abenturak eta esperientziak kontatuko dizkigu.

Bidaian zehar, Ismaelek itsasoko bizimoduaren gorabeherez gozatuko du, balea ehiztarien bizimodu gogorra ikasiko du, lagunak egin eta beste kultura batzuetako jendea ezagutuko du, balea mota desberdinak antzeman eta baloratuko ditu...

Hala ere, Acab kapitaina ‘Moby Dick’ balea zuria mendekatu nahian ibiliko da eta, azkenean, obsesio horrek zoritxarra baino ez die ekarriko Pekodi eta bere tripulazioari.

## FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Julio Salvatierra
- Zuzendaritza: José Carlos García
- Zuzendari laguntzailea: Ana Peres
- Aktoreak:  
Aritza Rodriguez,  
José Cruz Gurrutxaga  
Eriz Alberdi
- Konposizio musikala: Fran Lasuen
- Musikariak: Fran Lasuen eta Unai Leso
- Eszenografia eta atrezzo: Javi Tirado
- Jantziak: Ikerne Jimenez
- Argia: Javi Ulla
- Zuzendaritza artistikoa eta ekoizpena: Alex Díaz
- Banaketa: JP Producciones



# ESKOLA EDO GAZTETXOEI ZUZENDURIKO ANTZERKIA

## AZAROAK 9, astelehena

- Ikastetxea: AMEZKETAKO ZUMADI HERRI IKASTETXEA
- Ordua: 11:00etan
- 1. Antzezlanak: KANTAGINTZA “ LAU TEILATU”  
Antzezleen maila: LH3  
Ikusleak: LH3 LH4 eta LH5
- 2. Antzezlanak: IPUIN MUSIKATUA: “5 SAGU BIHURRI MUSIKA JOTZEN”  
Idazleak: Chisato ta Siro  
Antzezleen maila: LH4  
Ikusleak: LH3 LH4 eta LH5
- 3. Antzezlanak: BERTSOLARITZA: MIEL HANDI “ALTZOKO ERRALDOIEAREN PASADIZOAK”  
Antzezleen maila: LH5  
Ikusleak: LH3 LH4 eta LH5
- 4. Antzezlanak: ANTZERKIA: “MATTIN MOTTELA” SAKANAKO PERTSONAI BATEN PASADIZOAK. “ SATRUSTEGI”  
Antzezleen maila: LH6  
Ikusleak: LH3 LH4 eta LH5

- Ikastetxea: BEASAINGO ANDRAMENDI IKASTOLA
- Ordua: 15:30ean
- 1. Antzezlanak: ESKOLAKO GOGORIK EZ  
Antzezleen maila: LH4  
Ikusleak: LH3, LH4 eta LH5
- 2. Antzezlanak: JON AUSARTA  
Antzezleen maila: LH5  
Ikusleak: LH3, LH4 eta LH5
- 3. Antzezlanak: ORGANIZAZIOA  
Antzezleen maila: LH6  
Ikusleak: LH3, LH4 eta LH5



## AZAROAK 10, asteartea

- Ikastetxea: BERMEOKO SAGRADO CORAZON IKASTETXEA
- Ordua: 11:00etan
- 1. Antzezlanak: GU “LOVE” PIRATAK  
Antzezleen maila: LH 6  
Ikusleak: LH 1, LH2, LH3 eta LH4
- 2. Antzezlanak: MADDI eta BERE LAGUNAK  
Antzezleen maila: LH 6  
Ikusleak: LH 1, LH2, LH3 eta LH4

- Ikastetxea: LASARTE- ORIAKO KUKUKA ANTZERKI IKASTOLA
- Ordua: 15:30ean
- Antzezlanak: MUTILIK EZ DAGO, ALA...  
Antzezleen maila: DBH 1  
Ikusleak: LH 5 eta LH 6




## AZAROAK 11, asteazkena

- Ikastetxea: LASARTE- ORIAKO KUKUKA ANTZERKI IKASTOLA
- Ordua: 11:00etan
- Antzezlanak: AUPA ETXEBESTE  
Antzezleen maila: DBH 3  
Ikusleak: DBH 1, DBH 2 eta DBH 3

- AZPEITIKO GAZTERIA SAILA  
Alaitz Olaizola
- Ordua: 15:30ean
- Antzezlanak: LEHENGO LEPOTIK BURUA  
Antzezleen maila: DBH 1-2-3-4,  
BATXI 1 eta Unibertsitatea
- Ikusleak: DBH 1, DBH 2, DBH 3 eta DBH 4

## AZAROAK 12, osteguna

- Ikastetxea: ORIOKO IKASBERRI
- Ordua: 15:30ean
- 1. Antzezlanak: GAZTE LOKALA  
Antzezleen maila: DBH 1  
Ikusleak: LH 5, LH 6 eta DBH 1
- 2. Antzezlanak: GERATU NIREKIN  
Antzezleen maila: DBH 3  
Ikusleak: LH 5, LH 6 eta DBH 1



## Azaroak 13, ostirala

HELDUENTZAT

21:30ean,  
Soreasu Antzokian

### “JOKOZ KANPO”

Borobil Teatroa



## SINOPSISIA

Manuk eta Martinek futbol talde banaren ardura dute. Mutil kozkorrak entrenatzen dituzte, kirol miresgarri honek dituen balore guztiak eransteko asmotan.

Manuk eta Martinek aspalditik ezagutzen dute elkar. Manuk eta Martinek finala dute begien bistan. Eta finala irabazi egin nahi dute. Garaipena dute nor direla frogatzeko modu bakarra, bizitzan ez daudela jokoz kanpo erakusteko aukera bakarra.

## FITXA ARTISTIKOA

- Egileak:  
Mikel Pagadizabal  
Nagore Aranburu  
Anartz Zuazua
- Aktoreak:  
Joseba Apaolaza,  
Asier Hormaza  
Asier Sota
- Musika: Ignacio Perez Marin
- Jantziak: Nagore Dendariarena
- Eszenografia: Josean Perez eta Iñaki Iriondo
- Argiak: Carlos Salaberri
- Zuzendaria: Anartz Zuazua

## Azaroak 14, larunbata

HAUR + HELDUENTZAT

21:30ean,  
Soreasu Antzokian



### “PUNTO TA PUNTO”

Azpeitiko Emakume Tailerra

## SINOPSISIA

Zer gertatuko litzateke, erabakitzen baduzu, ikasketak uztea? Utzi ez ezik, kontatu egin behar gero... amarengandik hasita. Zure ahizpak ere, amarentzako erabat desegokiak diren erabakiak hartu ditu... Ez da giro, eta behin ikasketan utzita, onena, etxetik alde egitea. Alde ordea, etxekoei telefono deia ere sobran dela?

Eta urteak pasatu ostean, berriz ere, utzitako giroarekin elkartzeko tenplea eta modua iristen bada, ahizparengandik hasita?  
Zer gertatuko litzateke, etxe aldaketa batean, zu langile izan eta kaxa garraioan, kutxa artean, eguneroko bat ikusiko bazenu? Irekitzeko tentazioa?  
Irakurtzen hastekoa?

NEKANE PEÑAGARIKANO (Arratsean, Euskadi Irratia)  
Hamabigarren urtea betetzen dugun honetan, lan berri batekin gatoz. Okasiorako zerbait berezia prestatu nahi izan dugu, ukitu bereziduna. Parodia, errealismoa... nahasten dituen barru-barruko istorio bat... Elementu gutxiarekin eta sinpleekin agertoki gainean, aktorearen lanak beteko duelarik espazio hutsa.

## FITXA ARTISTIKOA

- Gidoia eta zirikatze lana: Alaitz Olaizola
- Aktoreak:  
Ane Arenas  
Amaia Garmendia  
Erika Olaizola  
Eneritz Arzallus  
M. Karmen Borda  
Haizea Egiguren  
Garazi Agirre  
Uxoa Ibarreta  
Irene Alberdi
- Agertokiaren moldaketa: Emakumeen antzerki tailerra
- Off eko ahotsa: Gurutze Eizmendi
- Kartela: Jon Agirre
- Koreografia: Ane Arenas, Erika Olaizola, Uxoa Ibarreta, Irene Alberdi
- Laguntza:  
Silvia de Pablo  
Olatz Egiguren  
Emakumeen mahaia  
Udaleko parekidetasun saila  
Lakrikun antzerki taldea
- Eskerrak: Nekane Peñagarikanori, obra irakurri eta sinopsi bikaima egiteagatik.



ESTREINALDIA

**Azaroak 15, igandea**

HAUR  
+  
HELDUENTZAT

**18:00etan,  
Soreasu Antzokian**

**“MAGIA LAPURRA”**  
Txalo Antzerki Taldea

## SINOPSISIA

Dorleta, neska gazteak, magiarako zaletasun handia du eta, bere ilusioa bete asmoz, kasting proba batera aurkeztuko da, mago laguntzaile izateko probara, alegia.

Dorleta kasting batera dator antzokira. Mago laguntzailea izateko kasting-a da.

Antzoki baten jarri diote probarako hitzordua, mago batekin, baina magoa izan partez lapur bat izango da proba egingo diona.

Lapurrak amarrua egin nahi dio, mago plantak egiten dizkio, baina trukoak ez dira neskaren oso gustokoak; traketsa baita ustezko mago/lapurra.

Nola nahi ere, Dorleta eta lapurra elkarlanean jarriko dira kastinga egin behar duen benetakako magoari ziria sartzeko.

Proban ari direla, magoa agertuko da eta hortik aurrera, sekulako zalaparta, eta baita egoera magikoak ere, sortuko dira antzezlanean.

Magia eta sorpresaz betetako antzelana. Pianista batek obrari zuzenean musika jarriko dio.

## FITXA ARTISTIKOA

- Egileak : Begoña Bilbao, Asier Kidam, Iraitz Lizarraga, Alfonso Diez
- Itzulpena: Martin Agirre
- Aktoreak :  
Asier Kidam  
Alfonso Diez  
Iraitz Lizarraga  
Bittor Agirre
- Musika: Audio Network
- Eszenografia : Asier Sancho Senosiain
- Eszenografi Egilea: Escenica Integral
- Jantzien Diseinua: Cristina Martinez
- Argiztapena: Julen Zaballa
- Teknikoa: Alfredo Medina Lirio
- Atrezzoak : Cristina Martinez
- Aholkularitza Juridikoa: Hator
- Asegurogintza: Fremap
- Ekoizpen Exekutiboa Martin Agirre
- Ekoizpen Arduraduna: Xabier Agirre
- Ekoizpena: Txalo
- Banaketa : Ztp Banaketak
- Zuzendaria: Begoña Bilbao Lejarzegi

## Azaroak 19-20 ZIKLO BEREZIA ANTZERKI ALTERNATIBOA

Gaztetxean

Arratsaldeko 20:00etatik 21:15etara jantoki bejetarianoa

## Azaroak 19, osteguna “ZER DUZU AMY”

Oh My God!  
Elkarte artistikoa  
**21:30ean, Gaztetxean**

## SINOPSISIA

Dasyk edozein gauza egingo luke Amy Winehousen ahotsa eta talentua izateko. Baina bere ahotsa arrunta da, bere itxura arrunta da eta bizitza ere, arrunta du.

Amyren heriotzaren berri izan duenean, maleta hartu eta Londresera abiatu da, Edgwareburyko kanposantura. Amyren hilobiaren parean zera galdetu dio: *Amy, zergaitik ez zinen zoriontsu, sekulako ahotsa zenuen eta?!* Amyk ez du erantzun.

Ez da posible ahots hori betirako isilik egotea. Zerbait egin behar dut, pentsatu du Dasyk bere baitan. Orduan, maleta ireki eta bertatik esoterismo liburua, aitzurra ta pala atera ditu. Amyren ahots-kordak bereganatuko ditu!

## FITXA ARTISTIKOA

- Idazlea: Leire Ucha
- Zuzendaritza: Eguzki Zubia eta Natxo Gomez
- Aktorea: Leire Ucha
- Eszenografia eta atrezzo: Itziar Markiegi
- Argiztapen diseinua: Javi Andraka
- Jantzia: Carlota Devaney
- Kartela: Itziar Markiegi
- Ekoizpena: Oh My God! Elkarte artistikoa

# Azaroak 19-20

## ZIKLO BEREZIA

### ANTZERKI ALTERNATIBOA



Gaztetxean

Arratsaldeko 20:00etatik 21:15etara jantoki bejetarianoa



## Azaroak 20, ostirala

### “AMODIOAREN ZIEGA”

Lauka Teatroa

21:30ean, Gaztetxean

#### SINOPSISIA

Aitor preso dago. Miren, bere bikotea, bisitan doakio. Aurrez aurreko bisita da: bis a bis-a. Konturatu gabe pasatzen da denbora, ziega honetan.

Amodioa dute eginkizun. Baina gorroto dituen hark, gorroto duten hark, prestatu die hitzordua. Noiz arte irauten du maitasunak? Zergatik besarkatzen dira maitaleak? Nola aldatzen dira ametsak barruan edo kanpoan zaudenean? Eta beldurrak? Maitasunaren haririk hauskorrenak eta indartsuenak, agerian gelditzen dira amodioaren ziega honetan.

#### FITXA ARTISTIKOA

- Idazlea: Xabier Mendiguren
- Zuzendaritza: Lauka Teatroa
- Zuzendari Laguntzailea: Ander Lipus
- Aktoreak:
  - Nazaret Froufe
  - Urki Muguruza
  - Joana Ocaña
  - Eneko Sagardoy
- Argiztapena/Teknika: Arantza Flores
- Eszenografia: Lauka Teatroa
- Musika: Xabier Erkizia
- Argazkiak/Bideoa: Itziar Bastarrika
- Jantziak: Iker Nafta
- Diseinu Grafikoa:
  - Nagore Txintxurreta
  - Joana Ocaña
- Ekoizlea: Lauka Teatroa

## Azaroak 21, larunbata HELDUENTZAT



### “MOZKORRA PARREGARRI”

Xabier Maria Munibe  
Peñafloridako Kondearen OPERA KOMIKOA  
21:30ean, Soreasu Antzokian

#### SINOPSISIA

Lehenengo ekitaldia

Txanton Garrote mozkor damugabea bere lagun Martintxoren zapata-dendan sartuko da eta bertan geratuko da mozkorra pasatzera. Halako batean bere emazte Maritxo sartuko da, eztabaida sutsuan izan eta gero Maritxok senarrik gabe alde egingo du.

On Antonio, on Pedro eta on Diego zaldunek Txanton zeharo mozkortuta aurkituko dute dendan sartzerakoan. Orduan jipoia baino lezioa ematea erabakiko dute eta gizona konorterik gabe euretako baten jauregira eramango dute.

Bigarren ekitaldia

Txanton lo dago egongelan jantzi dioten arropa dotoreekin. Txundituta esnatuko da jasandako. Gertatzen ari zenari susmo txarra hartzen hasitakoan on Pedrok eta on Diegok urdaiazpiko eder bat eskainiz Trapisondako markesa dela sinestaraziko diote. Urdaiazpikoa jaten ahaleginduko da, baina ez diote utziko. Lehendabizi bi dendari donostiar sartuko dira egongelan, gero sagar-saltzaile bat. Gerorago, beste pertsonai batzuk sartuko dira eta Txantonen markesaren barkamena eskatuko du.

#### FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Xabier Maria Munibe, Peñafloridako Kondea (Jatorrizko obran abestiak euskaraz eta elkarrizketak gaztelaniaz)
- Partituraren transkripzioa: Evaristo Espinosa
- Erromesaren Tonadilla eta Seguidillaren musikaren egilea: Vicente Monzon Olaso
- Elkarrizketak euskarara itzulpena: Anastasio Albisu
- Hizkuntza orrazketa: Juan Martin Elexpuru
- Obra osoaren orkestrazioa eta musikaren egilea: Txemi Etxebarria
- Operaren bultzatzaileak eta antzerkiaren moldaketa: Valen Moñux eta Miguel Angel Elkorobezibar
- Klabezina eta zuzendari musikala: Iñigo Alberdi
- Bibolina I: Josune Ena
- Bibolina II: Miriam Moñux
- Biola: John Prieto
- Txeloa: Ane Zangitu
- Aktoreak:

Gorka Unamuno  
Marije Ugalde  
Karlos Etxaniz  
Julen Alberdi  
Fran Martinez  
Valen Moñux  
Nere Ibarra  
Aitzol Mujika  
Tomas Castelo  
Aitor Garitano

Ion Etxaniz  
Amaia Marko  
Blanka Narbaiza,  
Arantza Ibarzabal  
Lierni Narbaiza  
Rosa Narbaizam  
eta Idoia Juldain  
Izaro Aperribai  
Argiñe Agirrezabal

- Arduradun teknikoa: Alex Odriozola
- Zuzendari eszenikoa: Valen Moñux



ZATOZ  
ANTZERKIAZ  
GOZATZERA!